



* Argazkia azken edizioko irabazleak.

“JOXE MARTIN ETXEBERRIA” AIRE ZABALEKO PINTURA LEHIAKETA 2021-09-25 - LEGAZPI

Arkatza Elkarteak, Legazpiko Udalaren laguntzarekin, "Joxe Martin Etxeberria" Aire Zabaleko Pintura Lehiaketaren deialdia egin du, 2021ko irailaren 25erako. Lehiaketa honako **OINARRI** hauen arabera egingo da:

1. **Lehiaketa eguna:** Lehiaketa 2021eko irailaren 25ean, larunbatean, izango da.
2. **Parte hartzaileak:** Lehiaketan nahi duen edonork har dezake parte.
3. **Gaiak:** Lanak aire zabalean egin beharko dira eta gaia honakoa izango da: LEGAZPI.
4. **Teknika eta formatua:** Teknika librea izango da eta formatuari dagokionez, alderik handiena ezingo da metro bat luze baino handiagoa izan.
5. **Lanen zigiladura:** Margotzeko erabiliko diren oihalei, paperei edo dena delakoei Legazpiko Udaletxeko atarian jarriko zaie zigilua, goizeko 9etatik 10etara. Euskarriak aurretik prestatuta egon daitezke, baina ez dute inolako seinalerik edo zirriborrorik izan beharko.
6. **Lanen aurkezpena:** Lanak (sinatu gabe) norberak ekarritako kaballeteetan aurkeztu behar dira Udaletxe aurreko plazan 13:30-14:00 bitartean. Lanarekin batera egilearen datuak dituen gutun-azal itxi bat aurkeztu beharko da.
7. **Epaimahai:** Horretarako gai den epaimahai batek aukeratuko ditu lanik onenak. Erabakiak eta epaimahikoen izenak irailaren 28an bertan, arratsaldeko 18:00etan emango dira jakitera eta jarraian, sari banaketa egingo da. Epaimahaiaren erabakiak aldaezinak izango dira eta sariak hutsik gera daitezke.
8. **Lanen erakusketa eta jabegoa:** Lanak Udaletxe aurreko plazan egongo dira ikusgai 19:00ak arte aurkeztu diren kaballeteetan. Bi lan irabazleen jabegoa Udalarena izango da.
9. **Sariak:** Lau sari izango dira:
 1. Saria: 500€
 2. Saria: 350€
 3. Saria: 200€.HERRI BOZKETAK ERABAKIA: 100€.
Partaide bakoitzak sari bakarra jaso ahal izango du.
10. **Lanen itzulketa:** Saritu gabeko lanak egunean bertan jasoko dira 19:30-20:00ak bitartean erakusgai dauden tokian bertan. Antolatzaileak egoki deritzena egiteko eskubidea izango dute jaso gabeko lanekin. Egileek ez dute erreklamaziorik egiteko eskubiderik izango.
11. **Beste ohar batzuk:**
 - *Parte-hartzaileei herriko plano bat emango zaie.
 - *Parte-hartzaileei bazkari bat emango zaie.
 - *Lehiaketa honetan parte hartzeak jarritako oinarriak onartzea dakar berarekin. Antolatzaileek lehiaketaren onerako izan litezkeen aldaketak egiteko ahalmena izango dute.
 - *Aurkeztutako lanak antolatzaileek zainduko dituzten arren, ez dituzte hauen gain hartuko sariketan eta erakusketen nahi gabe, gerta litezken kalteak.



* En la foto los ganadores de la última edición.

CONCURSO DE PINTURA AL AIRE LIBRE

“JOXE MARTIN ETXEBERRIA”

25-09-2021 - LEGAZPI

Arkatza Elkarte, con la ayuda del Ayuntamiento de Legazpi, convocan el Concurso de Pintura al Aire Libre “Joxe Martin Etxeberria”, para el 25 de septiembre del 2021. El Concurso se convoca con arreglo a las siguientes **BASES**:

1. **Fecha de celebración:** El concurso se celebrará el *sábado día 25 de septiembre de 2021*
2. **Concursantes:** Podrán participar en el Concurso cuantas personas lo deseen.
3. **Tema:** Los trabajos deberán efectuarse al aire libre y el tema será: LEGAZPI
4. **Técnica y Formato:** La técnica será libre y en cuanto al formato las obras no podrán tener más de un metro en su lado mayor.
5. **Sellado de obras:** Los soportes a utilizar para la realización de las obras habrán de ser sellados en el Ayuntamiento de Legazpi, de 9 a 10 de la mañana. Los soportes podrán presentarse preparados, pero en ningún caso serán admitidos bocetos, dibujos y otras señales sobre dichos soportes.
6. **Presentación de las obras:** La presentación de los trabajos se hará en Euskal Herria plaza (frente al Ayuntamiento) de 13:30 a 14 horas sobre los caballetes aportados por cada participante. Junto con la obra, se entregará un sobre cerrado con los datos personales..
7. **Jurado:** Un jurado cualificado determinará las mejores obras. Tanto el fallo como su composición se harán públicas el mismo día 28 a las 18:00 horas, momento en el que se procederá a la entrega de premios. Las decisiones del jurado serán inapelables, pudiendo quedar los premios desiertos.
8. **Exposición y propiedad de las obras:** Los trabajos presentados estarán expuestos sobre los caballetes en los que se han presentado en la plaza frente al Ayuntamiento hasta las 19:00 horas. Los trabajos de los ganadores quedarán en propiedad del Ayuntamiento.
9. **Premios:** Habrá CUATRO premios:
1er premio: 500€
2º premio: 350€
3er premio: 200€.
HERRI BOZKETAK ERABAKIA: 100€.
Cada participante podrá recibir un único premio.
10. **Retirada de las obras:** Las obras se retirarán de 19:30 a 20:00 horas en la misma plaza.. En caso de no retirar las obras, la organización dispondrá de ellas como considere, sin que exista posibilidad alguna de reclamación por parte del participante.
11. **Otras consideraciones:**
 - *A los participantes se les entregará un plano del municipio
 - *A los participantes se les dará una comida.
 - *La participación en este Concurso implica la aceptación de todas y cada una de las bases. La organización podrá incluir cuantas modificaciones estime convenientes para el mejor desarrollo del mismo.
 - *La organización velará por el buen cuidado de las obras, pero no se hará responsable de desperfectos causados involuntariamente, así como de las obras no recogidas.